




ESTABLEZIMENDUEN ERDIEK JADA BIDE ELEKTRONIKOAN IZAPIDETZEN DITUZTE GUZTIZ ADMINISTRAZIO- PROZEDURAK

EAEko milioi erdi bat egoiliar baino gehiago jartzen dira Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan Interneten bidez

G.1. Euskal Autonomia Erkidegoan azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. 2000-2017.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

EAEko hamar establezimendutatik bederatzik —% 91—, hau da, 150.054k, alde batera utzita lehen sektorekoak, etxeko zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak, Administrazio Elektronikoa erabili zuten 2017an¹, zuzenean nahiz hirugarrenen bitartez². 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen kasuan, berriz, % 96k, Eustateko datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa da: informazioa eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.

Azken 18 urteetako datuak jaso dira, eta horietan bi aldi bereiz daitezke: 2000tik 2008ra bitartean, Administrazio Elektronikoa erabilera izugarri hazi zen enpresen aldetik —bider zortzi baino zerbait gehiago— eta, bitartean, erroldari 31.509 unitate gehitu zitzaizkion; 2009 eta 2013 bitartean, krisi ekonomikoan murgildurik, aurreko aldiko saldo positiboaren parte handi bat galdu zen —30.123—, eta Administrazioekin harremanetan Internet bidez jartzen zirenen hazkundera mantsotu egin zen: azken bost urte horietan

¹ Administrazio Elektronikoa erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.


² 2016ko bilketan, izapideak eta prozedurak egin edo informazioa jaso euren zuzenean egiten zituzten establezimenduez gainera, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten establezimenduak ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe Administrazio Elektronikoa erabiltzen dutenak sartu ziren.

hazkundera % 7,3koa izan zen. 2013tik 2014ra, 3.410 establezimendu gehiago izan ziren Administrazio Elektronikoen erabiltzaile, hau da, urte arteko % 3,8ko hazkundera egon zen.

2015ean, haustura egon zen 2000-2014ko seriearekin alderatuta: 25.355 establezimendu gehiago sartu ziren (% 27,1 gehiago), metodologia-aldaketarengatik neurri handi batean. 2016an, beste 26.173 batu ziren, % 22 gehiago, ia erdia Administrazio Elektroniko erabili arren Internet konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketarengatik (guztira 14.727, hamar establezimendutatik bat). Beraz, metodologia-jauzia baztertuta, hazkundera nabarmena izango litzateke, % 9,6koa.

2016tik 2017ra, 5.097 establezimendu —% 3,5— gehitu zitzaizkien Administrazio Elektronikoi; bilakaera hori eta 2012az geroztik ikusitakoa ez dira oso desberdinak (aipatutako aldaketa metodologikoak alde batera utzita). Kontuan izan behar da 2013tik establezimenduen guztizko kopurua 165.000 inguru izan dela, aldakuntza —galera— txikiekin; hortaz, Administrazio Elektronikoen erabileraren gehikuntza garbia da.

G.11 Internet duten establezimenduak, administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

Jaitsi da administrazio publikoekin harremanetan jartzeko beste erakunde batzuk behar dituzten establezimenduen portzentajea: 2016an % 78,3 izan zen, eta 2017an, aldiz, % 71,5. 10 enplegu edo gehiago dauzkatenen kopuruaren beherakada ez da nabarmena, erdia baino pixka bat gehiago —% 52,9— baita oraindik.

Kontuan izan behar da enpresek eta haien establezimenduek beren administrazio-kudeaketa batzuk zuzenean egin ditzaketela eta, aldi berean, hirugarrenengana jo dezaketela beste batzuk egiteko: 10 enplegu edo gehiago dituztenen % 84,2k ere eurek izapidetzen dute zuzenean. Ziurrenik, erakunde horiek aro digitala baino lehenago hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak oraindik ere elektronikoki egiten dituzte, establezimenduen tamaina eta ahalmen informatikoak edozein izanda ere.

Establezimenduen eroldaren saldoa nahiko egonkorra izan da azken urteetan; horregatik badirudi Administrazio Elektronikoen erabileraren hazkundera garrantzi handia izan dutela aipatutako metodologia-aldaketek, baita administrazio publikoen eta sektore ekonomikoen arteko Internet bidezko harremanen bilakaera positiboak ere bai.

G.2. Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa.2000-2017. Δ%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

2015ean eta 2016an gora egin zuen Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen kopuruak, neurri handi batean Internet nahitaez eduki gabe kudeaketak hirugarren batek egiten dituela erantzuteko aukera sartzeagatik; horrenbestez, ikusten diren izapide-mota guztiek gora egin dute nabarmen. Bereziki, BEZaren aitopeneak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioen kudeaketak.


Administrazio Elektronikoen erabileraren sofistikazio-mailari dagokionez, 2017an, 2011ko datuekin erkatuta, prozedura elektronikoko bat osorik izapidetzea lortzen duten establezimenduen portzentajea bikoiztu zen: % 25,3tik % 50,3ra pasatu zen. Betetako inprimakiak administrazioei elektronikoki itzultzeko aukerak ere nabariki egin zuen gora 2016 eta 2017 bitartean, alegia, establezimenduen % 45,3tik % 55,4ra pasatu zen.

G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2017. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2017. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak dira azken urtean Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimendu gehien irabazi dituzten erakundeak: % 16,4 eta % 13,7, hurrenez hurren. Aldundiak oraindik ere erakundeen rankingaren buruan doaz (% 83,5), eta haien atzean Administrazio Zentrala (% 67,6) eta Eusko Jaurlaritza (% 48,7) daude. Kontuan hartu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiakin izapideak egitera eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela izapideak.

TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2017. %

	Guztira							Eusko Jaurlaritza							Foru aldundiak							Toki-erakundeak						
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	47,2	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	91,0	34,3	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	48,7	39,4	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	83,5	20,1	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5	26,5
Informazioa lortzeko	41,7	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	66,5	30,8	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	41,2	32,1	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	50,9	17,7	20,0	20,7	20,3	18,2	24,7	22,6
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	39,3	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	65,1	24,9	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	36,7	30,1	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	51,4	13,1	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0	18,0
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	32,0	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	55,4	19,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	29,8	24,3	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	42,1	8,1	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7	13,7
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	25,3	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	50,3	13,6	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	25,2	18,0	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	36,4	5,7	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8	9,8
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	6,0	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	15,8	3,2	2,8	2,9	2,9	4,4	4,5	7,3	3,1	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	8,7	1,6	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6	2,3
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	17,3	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	57,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	21,3	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	57,1	-	-	-	-	-	-	-	18,7	26,2	25,2	25,5	40,3	50,3	49,3	-	-	-	-	-	-	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	25,1	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	73,3	-	-	-	-	-	-	-	22,3	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	67,7	-	-	-	-	-	-	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,4	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	11,6	-	-	-	-	-	-	-	0,9	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-	-	-	-	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	7,5	0,6	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	3,0	0,9	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	3,6	0,2	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,7


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2017. % (Jarraip.)

	Administrazio Zentrala							Europar Batasuna eta beste batzuk						
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	28,6	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	67,6	6,0	5,1	4,9	6,2	7,4	7,2	8,8
Informazioa lortzeko	18,9	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	22,8	5,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6	6,9
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	15,4	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	19,6	3,3	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5	4,3
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	12,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	16,5	2,3	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8	3,2
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	9,5	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	14,7	1,7	1,5	1,5	1,7	1,7	2,0	2,6
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	2,5	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	4,6	0,5	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0	1,2
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	17,0	26,8	28,1	27,8	43,3	56,1	56,9	0,5	0,4	0,3	0,5	1,2	0,9	0,7
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	4,7	7,0	11,0	11,1	9,5	17,1	11,7	0,3	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5	0,3
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	5,6	7,2	13,1	11,5	9,5	18,1	10,2	0,2	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7	0,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	4,4	4,5	4,7	5,2	9,1	8,8	11,1	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8	0,7
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	1,3	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,3	0,3


Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarte-erburuzko inkesta. ESI Administrazioa

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduei buruz, esan behar da joera ekonomikoa aldatzen ari dela: sei urtean establezimenduen kopuruak behera egin zuen (2009 eta 2015 bitartean 1.991 enpresa gutxiago izan ziren —sorreren eta suntsipenen arteko diferentzia—), baina, horren ostean, 2015etik 2016ra bitartean joera alderantzizko bihurtu zen eta gehikuntza garbia 157 unitatekoa izan zen, % 1,3; 2016tik 2017ra bitartez, aldiz, hazkundea handiagoa izan zen —% 3,6 eta 445 unitate—. Hobekuntza horrek zuzeneko ondorioa izan zuen Administrazio Elektronikoa erabileran: talde horretan % 6,6 areagotu zen 2015-2016 bitartean, eta % 5,1 2016tik 2017ra.

G.4.1.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2017.%



G.4.1.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2017.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

Foru-aldundiak 10 enplegu edo gehiago dituztenen estratuari dagokionez ere daude Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen rankingaren buruan, % 86,1ekin. Gainera, urte arteko gehikuntzarik handiena izan dute: 5,5 ehuneko-puntu gehiago. Ondoren Administrazio Zentrala dator: % 85,3 eta 2,1 ehuneko-puntu gehiago. Lau establezimendutatik hiru — % 75,4— daude harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin, eta horien hazkundera ere nabarmena izan da: 2016an baino 4,4 ehuneko-puntu gehiago.

Europar Batasunaren partaidetza 2,9 ehuneko-puntu igo da, eta 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen % 22,9ra heldu da.

Toki-erakundeek, establezimenduen kopuru osoan ikusi denez, estratu horretan ere hobera egin dute; 2,7 ehuneko-puntu eta erabiltzaileen % 45,8 igo dira.

G.4.2. Establezimenduak, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017. Δ %




Lehen sektoreko establezimenduen heren batek administrazio publikoekin harremanetan jartzeko bide elektronikoak erabiltzen ditu, eta 2015ean bostetik lau ziren 10 enpleguko edo gehiagoko geruzan³

2012an Administrazio Elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2; igoera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenik, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan interneten garrantzia, zenbateraino sartu den, 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

Azkenik, baina garrantzitsua hau ere, hirugarrenen bitartez egindako tramitazioa neurtzen da: guztien artean lautik hiruk –% 76,8– administrazioarekiko betebeharrak zeharbidez betetzen dituzte. Hala ere, ia-ia erdiek interneteko teletramitazioak euren kabuz egiten dituzte.




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak 2015ean 137 ustiategik osatutako klub murriztua ziren; bost kasutik lautan –% 84,3– kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten euren administrazioko tramiteak egiteko, batezbestekoa baino ehuneko 7,5 puntu gehiago. Egoera hori gertatzen da ustiategi ertain eta handi horiek konplexuagoak direlako eta administrazioekiko harreman-bolumen handiagoa dutelako. Dena dela, hiru urtean, geruza

³ Administrazio Elektronikoaren erabilerrari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi metodologia-aldaketarengatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarrenen bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.

horretan Administrazio Elektronikoa erabilera-tasak gora egin du ehuneko 4 puntuak.

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2015.%




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

Lehen sektoreak 2015. urtean harreman elektronikoetarako gehien erabili zuen administrazioa foru-administrazioa izan da, hiru establezimendutik ia-ia batek – % 32k-; horren atzetik datoz Administrazio Zentrala, % 23,8rekin, autonomia erkidegokoa % 17,3rekin, eta toki administrazioa % 8,5rekin.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten denez, lautik hiruk tramite elektronikoak proportzio berean egiten dituzte foru administrazioekin eta estatukoarekin, % 40,9k autonomia-erkidegokoarekin, eta % 13,1ek tokikoarekin.

G.5.3.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012, 2015.%



Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

G.5.3.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012, 2015.%



Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

TAB. 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015. %

	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	35,2	17,3	32,0	8,5	23,8	4,4	78,8	40,9	75,2	13,1	75,2	3,6
Informazioa lortzeko	24,8	14,6	21,0	7,8	8,2	4,0	68,6	33,6	57,7	11,7	43,1	2,9
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	23,3	12,5	19,6	5,9	6,1	3,2	67,2	30,7	59,9	8,0	40,9	0,7
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	15,0	8,3	12,9	4,4	5,2	3,1	62,0	22,6	54,7	8,0	33,6	0,7
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	7,3	3,7	5,1	0,8	1,5	0,4	25,5	12,4	21,2	2,9	8,0	-
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	2,2	0,9	1,1	0,1	0,4	0,2	14,6	5,8	9,5	2,9	2,2	-
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	20,1	-	-	-	19,9	0,2	68,6	-	-	-	68,6	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	16,5	-	14,9	-	1,7	0,2	64,2	-	61,3	-	5,8	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	17,9	-	16,9	-	1,1	0,2	68,6	-	67,9	-	2,2	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	1,6	-	-	-	1,4	0,2	15,3	-	0,0	-	15,3	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,5	0,4	1,0	-	0,2	0,0	3,6	0,7	1,5	-	2,9	0,7

Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

Alde batetik, nabarmendu behar da lehen sektoreko establezimenduak distantzia handira daudela gainerako sektore ekonomikoetatik, administrazio publikoekin elkarreraginean aritzerakoan: gainerako sektoreek % 87,8ko tasa dute; lehenengok, aldiz, % 35,2koa.


Tarte hori handiagoa da Administrazio Elektronikoa gehien erabiltzen diren tramiteetan: % 20,1ek hala deklaratu dituzten Gizarte Segurantzako kotizazioak, eta gutxi gorabehera % 17k hala kudeatzen du Sozietateen gaineko Zerga edo BEZa. Gainerako sektore ekonomikoetan hurrenez hurren % 56,7ra, % 62,9ra eta % 72,8ra heltzen ziren.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiatuekiko egoera oso differentea da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta, eta ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen da. Enplegu-geruza berberarekin konparatuta, tarte hori % 15,8

puntuetakoa da $-52,6$, tamaina kontuan hartu gabe-. Azpimarratu behar da 4 puntura murrizten dela gizarte-kotizazioen aitortpenean eta 7,6ra Sozietateen gaineko Zergan.

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen artean gertatzen den jauzi azpimarragarria, lehenengo sektorearen eta gainerakoen artean, prozedura bat osorik bitarteko elektronikoeekin tramitatzean gertatzen da: % 25,5 lehenengo kasuan, eta % 64 bigarrenen kasuan.

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015.%




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP



Milioi erdi bat pertsona daude Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan elektronikoki

Azken 12 hilabeteetan (2018ko lehen hiruhilekotik 2017ko lehen hiruhilekora arte)⁴, EAEn bizi diren 16 urtetik 74 urtera arteko 718.800 pertsonak erabili dituzte administrazioek eskaintzen dituzten aukerak herritarrekin harremanak izateko, guztien % 44,7k, alegia.

G.6 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2018, azken 12 hilabeteetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2018. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

2005az geroztik, Administrazio Elektronikokoaren erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi da. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundera internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3 administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua.

2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.


2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.

⁴ 2003tik 2008ra bitartean, ESIFek urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan jasotzen zuen informazioa; beraz, Administrazio Elektronikokoaren erabilerari emandako erantzunerako erreferentziako hiruhilekoa inkesta egiten zen urtean sartzen zen (azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen da). 2009az geroztik, informazioa urteko lehen hiruhilekoan jasotzen da; hortaz, erabileraren erreferentziako aldia aurreko urteko azken hiruhilekoan dago. Kasu guztietan, inkesta egin zen urtea utzi da. 2015ean, bilketa-aldia urtearen lehen erdi osora zabaldu zen; horrenbestez, azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen denez, denbora-erreferentzia 2014ko 4. hiruhilekotik 2015eko 1. hiruhilekora bitartekoa da. 2016az geroztik, Administrazio Elektronikokoaren erabileraz galdetzeko aldia azken hamabi hilabeteak dira.

Aintzat hartu behar da azken hiru hilabeteetan Interneten sartu diren pertsonen zaiela Administrazio Elektronikoa.


Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Familientzako informazioaren gizartearen inkestak» biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak analizatzea.

G.7 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2018. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

Sexua kontuan hartuta, eta Administrazio Elektronikoa erabiltzen dutenen guztizko kopurutik gizonen eta emakumeen ehunekoen diferentzia kalkulatzeko bada, gorabehera biziak izan diren aldiak ikusi arren —2006 eta 2013 bitartean—, arrail hori txikiagotzeko joera motel eta argia igartzen da. Azken urte horretatik aurrera, internauten eta erabiltzaileen genero-arrailek murrizteko joera argia erakutsi dute.

2003an, internauten arraila 6,2 puntu negatibora heldu zen, eta 2018an –2,5etan geratu da. Zenbatespen lineala erabiliz gero, ausazko aldakuntzak alde batera utzita markatzen baitu joera, 2003an 6,2 puntu negatiboetatik ia 3 puntu negatibotara pasatu zen.


Azpinarratu behar da internauten artean arrail handiagoa dagoela Administrazio Elektronikoaren erabiltzaileen artean baino. Horrek administrazioekin beste kanal batzuen bitartez harremanetan jartzean pertsonen artean izaten den egoera bat berresten du: emakumeak gizonak baino maizago arduratzen dira administrazio-kudeaketetz.

Izan ere, kopuru absolututan, 2018ko inkestak Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten emakume baino gizon gehiago zenbatu ditu: 369.200 emakume eta 348.800 gizon, hots, 0,3 puntuko genero-arrail positiboa emakumeentzat.

Joerak ematen duen zenbatespen linealean jartzen bada arreta, 2003an –3 puntuko arraila atzeman zen (erdia, internautekin erkatuta), eta 2018an ehuneko-puntu 1eko distantzia negatibora heldu da.


Langa 2017an jada gaintitu zen arren, gizon eta emakume internauten arteko diferentzia areagotu egin da 2018an: hain zuzen, 2017an gizon baino 6.400 emakume internauta gehiago zenbatu ziren, eta 2018, 15.300 gehiago. Telefono mugikorra sartzeak eta Administrazio Elektronikoaren informazioak eta izapideak euskarri horretara egokitzeak ere bilakaeraren zati bat azalduko lukete.

G.12.a Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten 16-74 urte bitarteko biztanle internauten genero-arraila. Joerak. EAE. 2003-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten edo Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruaren diferentzia, sexuaren arabera. EAE. 2003-2018. Milak.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

Inkestaren beste ezaugarri esanguratsu bat, azken hiru urteetan nolabaiteko egonkortasunari eutsi baitio, herritarrekin harremanetan dagoen administrazio-mota da.

Baiezta daiteke 2018an Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen bi herenek —% 66,9— Eusko Jaurlaritzarekin egiten dutela, hots, ia milioi erdi bat pertsonak —480.200—. Foru-aldundiek % 38,3 lortu dute —275.200 erabiltzaile—, toki-erakundeek eta Administrazio Zentralak % 27 inguru erdietsi dute —200.000 pertsona baino pixka bat gutxiago—, eta Europar Batasuna eta beste administrazio publiko batzuk % 3,4tan geratu dira —24.600 pertsona—.

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak⁵.

Alde batetik, azpimarra daiteke 2018an (edozein motatako webguneei⁶) egindako aipamen guztien % 11,1 edozein administrazioaren atari publikoei dagozkiela; hortaz, 7,4 ehuneko-puntuko jaitsiera egon da 2015ekin erkatuta.

Edozein espazio-eremutako atari publikoei egindako bost aipamenetatik lau —% 79,2— euskal administrazioei eta sektore publikoari dagozkio; 2,5 ehuneko-puntu galdu dira 2014rekin alderatuta.

Oro har euskal administrazioen eta sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak soilik aintzat hartuta, ikusten da % 62,5 EAEko Administrazio Orokorren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkiela. Portzentaje horretatik, 31 ehuneko-puntu euskadi.eus webguneari eta lotutako atariei dagozkie, eta 31,5, berriz, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei.


Foru-aldundien atariak euskal sektore publiko osoko aipamenen % 15,3 eta udalerrikoen % 7,4 biltzen dituzte. Unibertsitate publikoak —EHUK— EAEko

⁵ ESIFen galde-sortak bisitatutako azken 5 webguneak biltzen ditu, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonen erantzuten dute.

⁶ Gizarte-sareei (Facebook, Twitter, YouTube), bilatzaileei (Google, Yahoo...) eta bat-bateko mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak, 2018an bildutako guztien % 39,8 baitira, guztizko kopurutik ezabatu dira.


atari publikoen aipamenen % 13,1 jasotzen ditu, eta UNEdek, gainerako % 1,3a.

G.13. Azken 12 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2018. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleak egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2018. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2018. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF



E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKAK

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.
[Administrazio Elektronikoari buruzko terminoen Glosarioa](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.
[Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika -ESPE 2016-](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.
[Administrazio Elektronikoaren Barometroa Euskal Autonomia Erkidegoan -BEA-](#)

ENPRESEI ETA FAMILIEI ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ERABILERARI BURUZ EGINDAKO ESTADISTIKA-DOKUMENTU NAGUSIETARAKO ESTEKAK

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -FAMILIAK-. IGIF](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. ESI ADMINISTRAZIOA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -LEHEN SEKTOREA-. IGIL](#)

